

GIPUZKOAKO SAGARDO LEHIAKETA

Adunako Aburuza sagardotegiak irabazi du XXI. Sagardo Lehiaketa-Gipuzkoako Foru Aldundia Sariak txapelketa.

Gipuzkoako 18 sagardogile lehiatu ziren XXI. Sagardo Lehiaketa-Gipuzkoako Foru Aldundia Sariak txapelketan, eta, duela bi urte bezala, laz ere, lortutako puntuazioaren arabera hiru kategoriatan banatu ziren sagardoak: urrea 72 puntutik gora, zilarra 65 eta 72 puntu artean, eta brontzea 60 eta 65 puntu artean. Jarraian, urrearen kategoria lortu zuten sagardoaren artean, beste dastatze fase bat egin zen, eta txapelduna aukeratu zuten: Adunako Aburuza sagardotegia.

Horiek horrela, 2022ko Gipuzkoako Sagardo Lehiaketan hamasei izan ziren 60 puntutik gora lortu zituzten sagardotegiak: brontzezko kalifikazioa lortu zuten Gaztañagak eta Itxas-Buruk. Zilarrezkoa Gurutzetak, Lizeagak, Petritegiak eta Zelaiak. Eta urrezkoa, berriz, Aburuza, Akarregi, Altzueta, Alorrenea, Begiristain, Etxeberria, Isastegi, Oiharte, Sai-zar eta Zapain sagardotegiak. Txapeldunetan txapeldun, ordea, Aburuza sagardotegia gailendu zen. Saritu guztiek euren botiletan, aurrean, egiaztapen moduko zigilu bat eramateko aukera izango dute, urrezko, zilarrezko eta brontzezko sailkapena erakutsiko duena.

Urtero bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiko Fraisoro laborategiko dastatzaleek osatutako epaimahaia egin zuten sagardoaren lehen aukeraketa, eta haiek izan ziren lehen sailkapenean urrea, zilarra eta brontzea esleitzeko arduradunak.

Bigarren fasean urreen artean txapelduna aukeratzeko, berriz, sagardotegiak beraiek proposatutako hiru pertsonak - Andoni Elz-mendi, Aitor Mendiluze eta Mikel Garaizabal - eta Fraisoroko dastatzaileko hiru dastatzalek osatu

zuten epaimahaia. Txapelduna aukeratzeko, lagin guztien alderdi analitikoa eta organoleptikoa aztertu ziren, eta dastaketa-panelak zentzumenezko analisiak egiteko metodoari jarraitu zion.

SAGARDOGINTZA SUSTATZEN JARRAITU

Sariak banatzeko ekitaldia ekainaren 22an egin zen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregiko tronu aretoan. Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiak azpimarratu zuen lehiaketaren helburu nagusia dela bertako sagarrarekin egindako sagardoa, Euskal Sagardoa sormarkara bideratutakoa, balioan jartzea, sustatzea eta saritzea. «Sagardoa, txakolinarekin eta gaztarekin batera, Gipuzkoa-



Sari banaketa ekitaldia, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

ko produktu izarretako bat da, bere balio kultural, gastronomiko eta ekonomiko dela eta. Nazioartean ere posizionatzen gaituen eta izen ona ematen digun produktua da sagardoa, edonoren aurrean harro erakusteko moduko edaria, hain zuzen: gure lurretik sortua eta ekoiztua».

Ondorioz, Gipuzkoako Foru Aldundiak sagardogintzaren sektorea sustatzen jarraituko duela gaineratu zuen Olanok, hainbat neurriekin. Horien artean, urtero bertako sagardondoa landatzeko 300.000 euroko diru laguntza lerroarekin, Gipuzkoan %100 bertako sagarrarekin ekoiztera

iristea baita helburua. «Izan ere, asko dira onurak: bai prozesu guztiaren kalitate kontrola gauzatzeko, bai lehiakortasun handiago izateko, eta baita zero kilometroaren aldeko apustuarekin jarraitzeko ere».

Ekitaldian, Xabier Arruti Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Lurralde Orekako

Zuzendariak nabarmendu egin zuen sagardogileek pandemia garaian egindako lana eta berrikuntzen eta kalitatearen alde egin duten bidea.

@ Informazio gehiago bildu nahi izanez gero, bisitatu webgune hau: www.gipuzkoa.eus

Asteazkenetik larunbatera zabalik, eguerdian eta gauean, uztaiera artel!



R. ZABALA
SINCE MORE THAN 200 YEARS

GARAGARTZA BASERRIA
20180 ADUNA, GIPUZKOA,
BASQUE COUNTRY.
INFO@RZABALA.COM
PHONE NUMBER
0034 943 88 07 74
WWW.RZABALA.COM



SAN DONOSTIA

FRANCE

SPAIN

URBITARTE sagardotegia



Bazkariak ostiraletan, larunbatetan eta igandeetan
Egunero, aurrez ordutuz gero, bazkariak ere bai - Asteazkenetik larunbatera



Ergoiena auzoa • ATAUN
943-18 01 19 • urbitartesagardotegia@gmail.com
www.urbitartesagardotegia.com